

Futbola eta politika

Euskaldunon Egunkaria, 1994-04-26: 2.

Kiroletatik gehien jokatu dudana futbola izan da, eta oraindik ikusle edo entzule gisa gehien jarraitzen dudana berauxe. Telebista bidez ematen dutenean, euskarazkotik, noski, bertan Jose Angel Iribarren irazkinak ditut gogoko. Zorrotzak dira, profesionalak, ez nahikeriaz gogortuak; eta erabiltzen duen euskara: gutxi dira, mintzalari profesionaletatik kanpo, berea bezain justu eta dotore egiten saiatu eta lortzen duenik. Joan den astean ikus-entzun nituen Lleida eta Deportivo arteko jokaldiak; nere arreta, Lleidak sailez jeisteko zuen arriskuak bultzatakoa zen, eta partidua enpatatua zegoela esan zuen, gutxi gora behera: "Orain Lleidak, enpatea lortzen ari den honetan, gora begira jarri behar du, irabaztera jokatu behar du, zeren eta enpateari begira defentsiban jartzen bada, kontrarioa, Deportivo, igoko zaio gora eta honek menderatuko du". Kontu handiz entzuten dizkiot honelako taktikari dagokion irazkinak, bai baitakit berari entzunaz aparteko atezain lekutik ikuspegi zabal eta garaitik ehundaka jokaldi ikusi eta nozitu ere egin dituenaren esperientzia datorrela. Eta bat batean politikarako esana izan bailitzan jaso nuen: Hara hemen politikan buru direnentzat kontseilu egokia: ez dizkiote herriari, kasu honetan Euskal Herriari, une behe apaletan konsigna defentsiboak eman behar, irabaztekoak baizik, zeren eta herriaren egoera xume hau gutxienez bertan gorde nahi badugu irabazlearen moral aurreratuarekin bakarrik lortu dezakegu eta.